



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

XI. legegintzaldia

Iruña, 2023ko irailaren 29a

14. ZK.

A U R K I B I D E A

E SAILA:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- 11-23/ITP-00010. Interpelazioa, laneko arriskuen prebentzioaren arloko politika orokorrari buruzkoa. Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioak egin du (3. or.).

F SAILA:

Galderak:

- 11-23/POR-00139. Galdera, bronkiolitisaren ondorioak prebenitzearren eta gutxiagotzearren Osasun Departamentuak egindakoari buruzkoa. María Teresa Esporrín Las Heras andreak egin du (4. or.).
- 11-23/POR-00140. Galdera, 0tik 3 urtera bitarteko haurrak dituzten familientzako 100 euroko hileroko laguntzari buruzkoa. María Olga Chueca Chueca andreak egin du (5. or.).
- 11-23/POR-00141. Galdera, gazteen langabeziako egoera larria zuzentze aldera Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako Departamentuak egindakoari buruzkoa. María Isabel García Malo andreak egin du (5. or.).
- 11-23/POR-00145. Galdera, Alderdi Sozialistako idazkari nagusiaren inbestidura babestearren truke kataluniar independentismoak eskatzen dituen amore-emateei buruzkoa. Javier García Jiménez jaunak egin du (6. or.).
- 11-23/POR-00146. Galdera, Kataluniako lehendakari ohi Carles Puigdemontek planteatu duen Amnistia Lege-proposamenari buruzkoa. María Teresa Nosti Izquierdo andreak egin du (6. or.).
- 11-23/POR-00148. Galdera, Nafarroako hizkuntza-eskola ofizialetan 2023-2024 ikasturterako izan diren matrikulazio-datuei buruzkoa. María Inmaculada Jurío Macaya andreak egin du (7. or.).
- 11-23/PES-00092. Galdera, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan kontratatutako langileei epai judicial bidez lanbide-karrera onartu izanari buruzkoa. Leticia San Martín Rodríguez andreak egin du (7. or.).
- 11-23/PES-00093. Galdera, laguntzak jaso ahal izate aldera memoria historikoari eta diktadurako sinbologiari buruzko legedi indarduna betetzea eskatzeko aukerari buruzkoa. Carlos Guzmán Pérez jaunak egin du (8. or.).
- 11-23/PES-00094. Galdera, Estudios Melitón enpresaren aurkako auzi judicialari buruzkoa. Juan Luis Sánchez de Muniain Lacasia jaunak egin du (9. or.).

- 11-23/PES-00095. Galdera, odol-emateetarako herrietara eta beste toki batzuetara joaten den autobusari buruzkoa. Leticia San Martín Rodríguez andreak egin du (10. or.).
- 11-23/PES-00096. Galdera, nafarrak beste erkidego batzuetara laguntza-anbulantzietan eramateari buruzkoa. Leticia San Martín Rodríguez andreak egin du (10. or.).
- 11-23/PES-00097. Galdera, Nafarroako Espezializazio Adimentsuaren S4 Estrategiako eskualde-diagnostikoan jasotzen den "jakintzako zerbitzu trinkoetako enplegua" adierazleari buruzkoa. Miguel Garrido Sola jaunak egin du (11. or.).
- 11-23/PES-00098. Galdera, biomasak Nafarroaren eraldaketa energetikoan duen eginkizunari buruzkoa. Miguel Garrido Sola jaunak egin du (12. or.).
- 11-23/PES-00099. Galdera, "Enpresa pribatuetan hondakinak MITERD funtsekin kudeatzeko dirulaguntza" izeneko deialdiaren onuradunei buruzkoa. Adolfo Araiz Flamarique jaunak egin du (13. or.).
- 11-23/PES-00100. Galdera, "Enpresa publikoetan hondakinak Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioaren MITERD funtsekin kudeatzeko dirulaguntza" izeneko deialdiaren onuradunei buruzkoa. Adolfo Araiz Flamarique jaunak egin du (13. or.).
- 11-23/PES-00101. Galdera, "Enpresa publikoetan hondakinak Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioaren MRR funtsekin kudeatzeko dirulaguntza" izeneko deialdiaren onuradunei buruzkoa. Adolfo Araiz Flamarique jaunak egin du (14. or.).
- 11-23/PES-00102. Galdera, animalien eskubideak eta ongizatea babesteari buruzko martxoaren 28ko 7/2023 Legeak indarra hartzeari buruzkoa. Miguel Bujanda Cirauqui jaunak egin du (14. or.).

E saila:
INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

11-23/ITP-00010. Interpelazioa, laneko arriskuen prebentzioaren arloko politika orokorrari buruzkoa

CONTIGO NAVARRA-ZUREKIN NAFARROA TALDE PARLAMENTARIOAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko irailaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioak egindako interpelazioa, laneko arriskuen prebentzioaren arloko politika orokorrari buruzkoa.

2. Interpelazio hori Osoko Bilkuran izapidetzea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2023ko irailaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

INTERPELAZIOAREN TESTUA

Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioko Carlos Guzmán Pérezek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako interpelazio hau aurkezten du, kontroleko kasuko Osoko Bilkuraren gai-zerrendan sar dadin.

Lan-istripuen tasa kezkarria da oraindik ere Nafarroan. 2023ko lehen sei hilabeteetan ikusi denez, laneko istripuak lehen mailako arazoa dira oraindik ere gure erkidegoan.

Laneko eta Ekonomia Sozialeko Ministerioaren datuen arabera, sei hileko horretan 6.265 istripu gertatu ziren Nafarroan lanaldian eta in itinere; alegia, Estatuan gurea da hamar mila langiletik istripu-indize handiena duen lurraldea.

Nafarroan, zehazki, hamar mila langiletik 319,8 lan-istripu zenbatu dira laneko baja eragin dutenak, halako moduan non 96 puntutan gainditzen baitugu Espainiako batez bestekoa. Intzidentziasaren ratioa, Estatuaren arabera, 223,8 lan-istripukoa da –laneko bajarekin– hamar mila langiletik.

Datuek erakusten dute Nafarroan lan-istripuak etengabe eta oso-oso modu arriskutsuan igotzen ari direla. Osasun-krisitik atera ginenetik, jada hiru urte jarraian igo dira lan-istripuak.

Sektoreka, Nafarroak estatuko batez bestekoa gainditzen ditu lau produkzio-talde handietan: eraikuntza, zerbitzuak, industria eta nekazaritza. Intzidentzia-tasa bereziki handia da eraikuntzan eta industrian.

Horregatik guztiagatik, Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioak, Nafarroako “datu txar-txarrak” ikusita, lan-istripuen tasa jaiste aldera laneko arriskuen prebentzioaren arloan darabilen politika orokorrari buruzko interpelazio hau aurkezten dio Nafarroako Gobernuari.

Iruñean, 2023ko irailaren 20an

Eleduna: Carlos Guzmán Pérez

F saila:
GALDERAK

11-23/POR-00139. Galdera, bronkiolitisaren ondorioak prebenitzearren eta gutxiagotzearren Osasun Departamentuak egindakoari buruzkoa*MARÍA TERESA ESPORRÍN LAS HERAS ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko irailaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Teresa Esporrín Las Heras andreak egindako galdera, bronkiolitisaren ondorioak prebenitzearren eta gutxiagotzearren Osasun Departamentuak egindakoari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2023ko irailaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikita dagoen Maite Esporrín Las Heras andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduak ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Osasuneko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Bronkiolitisa arnasketari eragiten dion gaixotasuna da, larri-larria izatera hel daitekeena; hortaz, garrantzitsua da Nafarroako Gobernuak neurriak hartzea gaixotasun hori eta gaixotasunak ekar ditzakeen ondorio larriak ekiditeko.

Gaixotasunaren larritasuna ikusita, Osasun Departamentuak zer neurri hartu du gaixotasuna prebenitzen saiatzeko eta, hartara, gaixotasunaren ondorio larriak murrizteko?

Iruñean, 2023ko irailaren 15ean

Foru parlamentaria: Maite Esporrín Las Heras

11-23/POR-00140. Galdera, 0tik 3 urtera bitarteko haurrak dituzten familientzako 100 euroko hileroko laguntzari buruzkoa

MARÍA OLGA CHUECA CHUECA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko irailaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Olga Chueca Chueca andreak egindako galdera, 0tik 3 urtera bitarteko haurrak dituzten familientzako 100 euroko hileroko laguntzari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2023ko irailaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Olga Chueca Chueca andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin du, Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun diezaion:

Zenbat familiari eta adingaberi egin diezaieke mesede Nafarroako Gobernuak onetsi duen 100 euroko hileroko laguntzak? Kontseilariak zer balorazio egiten du eskabideak aurkezteko epeko lehen hilabetea igaro ondoren?

Iruñean, 2023ko irailaren 15ean

Foru parlamentaria: Olga Chueca Chueca

11-23/POR-00141. Galdera, gazteen langabeziako egoera larria zuzentze aldera Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako Departamentuak egindakoari buruzkoa

MARÍA ISABEL GARCÍA MALO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko irailaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Isabel García Malo andreak egindako galdera, gazteen langabeziako egoera larria zuzentze aldera Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako Departamentuak egindakoari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2023ko irailaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Alderdi Popularraren talde parlamentarioko Maribel García Malo andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin du, Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Gazteria Departamentuak zer egiten du gure erkidegoan gazteen langabeziaren egoera larria arintzeko?

Iruñean, 2023ko irailaren 15ean

Foru parlamentaria: Maribel García Malo

11-23/POR-00145. Galdera, Alderdi Sozialistako idazkari nagusiaren inbestidura babestearen truke kataluniar independentismoak eskatzen dituen amore-emateei buruzkoa

JAVIER GARCÍA JIMÉNEZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko irailaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Javier García Jiménez jaunak egindako galdera, Alderdi Sozialistako idazkari nagusiaren inbestidura babestearen truke kataluniar independentismoak eskatzen dituen amore-emateei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2023ko irailaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Nafarroako Alderdi Popularraren talde parlamentarioari atxikia dagoen Javier García Jiménez jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Foru Komunitateari nola eraginen liokete kataluniar independentismoak Alderdi Sozialistaren idazkari nagusiaren inbestidura babesteko eskatzen dituen amore-emateek?

Iruñean, 2023ko irailaren 20an

Foru parlamentaria: Javier García Jiménez

11-23/POR-00146. Galdera, Kataluniako lehendakari ohi Carles Puigdemontek planteatu duen Amnistia Lege-proposamenari buruzkoa

MARÍA TERESA NOSTI IZQUIERDO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko irailaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Teresa Nosti Izquierdo andreak egindako galdera, Kataluniako lehendakari ohi Carles Puigdemontek planteatu duen Amnistia Lege-proposamenari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2023ko irailaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

María Teresa Nosti Izquierdo andreak, Legebiltzarren Erregelamenduko 209. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, gaurkotatsun handiko 11-23/POR00146 galdera berreginda aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Kataluniako lehendakari ohi Carles Puigdemontek aurretiazko baldintza gisa jarri du Amnistia Legea onestea Espainiako Gobernuko lehendakariaren inbestidurari buruzko elkarrizketak hasteko. Hori dela-eta:

Nafarroako Gobernuko lehendakari zaren aldetik, lege hori aurkaratuko al duzu edo horren kontrako ekintzarik abiaraziko al duzu baldin eta legea onesten bada?

Iruñean, 2023ko irailaren 21ean

Foru parlamentaria: M^a Teresa Nosti Izquierdo

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Vox Nafarroa foru parlamentariaren elkarteari atxikia dagoen

11-23/POR-00148. Galdera, Nafarroako hizkuntza-eskola ofizialetan 2023-2024 ikasturterako izan diren matrikulazio-datuei buruzkoa

MARÍA INMACULADA JURÍO MACAYA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko irailaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Inmaculada Jurío Macaya andreak egindako galdera, Nafarroako hizkuntza eskola ofizialetan 2023-2024 ikasturterako izan diren matrikulazio-datuei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2023ko irailaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikita dagoen Inmaculada Jurío Macaya andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduak ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin du, Hezkuntzako kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan: zeintzuk izan dira 2023-2024 ikasturterako matrikulazio-datuak Nafarroako hizkuntza-eskola ofizialetan?

Iruñean, 2023ko irailaren 21ean

Foru parlamentaria: Inmaculada Jurío Macaya

11-23/PES-00092. Galdera, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan kontratatutako langileei epai judizial bidez lanbide-karrera onartu izanari buruzkoa

LETICIA SAN MARTÍN RODRÍGUEZ ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko irailaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Leticia San Martín Rodríguez andreak egindako galdera, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan kontratatutako langileei epai judizial bidez lanbide-karrera onartu izanari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2023ko irailaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Leticia San Martín Rodríguez andreak,

Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan aldi baterako kontratatutako zenbait erizain, mediku eta fisioterapeutari lanbide karrera aitortu zaie epai judizial bidez. Horri dagokionez:

- Zenbat dira, gaur egun (kopurua)?

- Zenbati zor zaizkie oraindik dagozkien ordainsariak?

- Gaur egun zenbateraino bete da 2023ko aurrekontuetan behin-behineko langileak lanbide karreran sartzera bideratutako partida?

- Zer aurreikuspen dago 2021az geroztik Administrazioari irabazten ari zaizkion epaiketa horiei dagozkien kostuei aurre egiteko?

Iruñean, 2023ko irailaren 14an

Foru parlamentaria: Leticia San Martín Rodríguez

11-23/PES-00093. Galdera, laguntzak jaso ahal izate aldera memoria historikoari eta diktadurako sinbologiari buruzko legedi indarduna betetzea eskatzeko aukerari buruzkoa

CARLOS GUZMÁN PÉREZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko irailaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Carlos Guzmán Pérez jaunak egindako galdera, laguntzak jaso ahal izate aldera memoria historikoari eta diktadurako sinbologiari buruzko legedi indarduna betetzea eskatzeko aukerari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2023ko irailaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioko Carlos Guzmán Pérez jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin du, Nafarroako Gobernuo Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako kontseilariak idatziz erantzun dezan.

Nafarroako Gobernuo Memoria Historikoaren Batzorde teknikoaren Nafarroako sinbologia frankistaren erroldan jasota ageri denez, Corellan

bada Nafarroako armariaren erreproduzio bat, San Fernandoren gurutze erramuduna duena.

Erreproduzio hori guneko publiko batean dago, Santa Bárbara, 40 kaleko eraikin bateko fatxadaren frontisean hain zuzen ere.

Azken urteotan laguntza publikoak jaso dituen enpresa baten jabetzakoa da eraikina. Nafarroako Gobernuak, Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritza Nagusiaren bitartez, laguntza eman zion 2020aren amaiera aldean, destilazio-enpresek COVID-19ak eragindako krisiari aurre egiteko diru-laguntza salbuespeneko gisa.

Higiezinaren jabe den enpresa halaber haren mantentze-lanez arduratzen dena bai baita, ez du ematen egokia denik dirulaguntza edota laguntza publikoak jaso ditzan, guneko publiko batean sinbologia frankista egotearen erantzule nagusia izanda.

Horregatik guztiagatik, Nafarroako Gobernuo Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako kontseilariari galdetu nahi diogu ea posible den horri nahiz beste edozein enpresa pribaturi laguntzak edo dirulaguntzak emateko baldintza gisa jartzea diktaduraren sinbologiaren eta memoria historikoaren arloko legedi indarduna zorrotz bete dezan.

Iruñean, 2023ko irailaren 18an

Foru parlamentaria: Carlos Guzmán Pérez

11-23/PES-00094. Galdera, Estudios Melitón enpresaren aurkako auzi judizialari buruzkoa

JUAN LUIS SÁNCHEZ DE MUNIÁIN LACASIA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko irailaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia jaunak egindako galdera, Estudios Melitón enpresaren aurkako auzi judizialari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2023ko irailaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioko Juan Luis Sánchez de Muniáin jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Zertan da Nafarroako Gobernuak edo/eta Nasuvinsa enpresa publikoak Melitón Estudios-en aurka abiarazitako auzia?

Zer gai zehatz planteatu ziren auzian, eta zer zenbateko erreklamatu dira?

Zer egunetan aurkeztu ziren Epaitegian kasuko erreklamazioak?

Nafarroako Gobernuak edo/eta Nasuvinsa enpresa publikoak zer beste ekintza abiarazi dute Melitón Estudios enpresak eragindako kaltea bideratzeko?

Nola daude Lekarozko instalazioak eta inguruak?

Mantentze-lanetako zer gastu ordaindu behar izan dira Melitón Estudios enpresaren jardura eten zenez geroztik?

Jarduerarik izan al da bere garaian Melitón Estudios enpresari esleitutako instalazioetan?

Zer erabilera esleitu zaie instalazioei? Zer zuzemen egin da horri dagokionez?

Iruñean, 2023ko irailaren 19an

Foru parlamentaria: Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia

11-23/PES-00095. Galdera, odol-emateetarako herrietara eta beste toki batzuetara joaten den autobusari buruzkoa

LETICIA SAN MARTÍN RODRÍGUEZ ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko irailaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Leticia San Martín Rodríguez andreak egindako galdera, odol-emateetarako herrietara eta beste toki batzuetara joaten den autobusari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2023ko irailaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Leticia San Martín Rodríguez andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Odol-emateetarako herrietara eta beste tokietara joaten den autobusa gehiago ez erabiltzeko arrazoiak, autobusaren ordeztu beste zer erabiliko den eta neurri hori behin-behinekoa ala behin betikoa den.

Iruñean, 2023ko irailaren 19an

Foru parlamentaria: Leticia San Martín Rodríguez

11-23/PES-00096. Galdera, nafarrak beste erkidego batzuetara laguntza-anbulantzietan eramateari buruzkoa

LETICIA SAN MARTÍN RODRÍGUEZ ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko irailaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Leticia San Martín Rodríguez andreak egindako galdera, nafarrak beste erkidego batzuetara laguntza-anbulantzietan eramateari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2023ko irailaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Leticia San Martín Rodríguez andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren 9/2023 jarraibidean oinarrituta, jakin nahiko genuke zer dela-eta baimentzen den nafar bat beste erkidego batera eramatea laguntza-anbulantzia batean baina ez den baimentzen Nafarroatik kanpo ospitaleratu behar izan den nafar bat gure erkidegora itzultzea laguntza-anbulantzia batean.

Iruñean, 2023ko irailaren 19an

Foru parlamentaria: Leticia San Martín Rodríguez

11-23/PES-00097. Galdera, Nafarroako Espezializazio Adimentsuaren S4 Estrategiako eskualde-diagnostikoan jasotzen den “jakintzako zerbitzu trinkoetako enplegua” adierazleari buruzkoa

MIGUEL GARRIDO SOLA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko irailaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Miguel Garrido Sola jaunak egindako galdera, Nafarroako Espezializazio Adimentsuaren S4 Estrategiako eskualde-diagnostikoan jasotzen den “jakintzako zerbitzu trinkoetako enplegua” adierazleari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2023ko irailaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Miguel Garrido Sola jaunak, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean,

honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuko Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitaleko Departamentuari, idatziz erantzun dezan:

Nafarroako Espezializazio Adimentsu eta Jasangarriaren S4 Estrategiaren eskualde-diagnostikoak ezartzen du jakintzako zerbitzu trinkoak direla konparaziozko analisi guztietan emaitza garbi okerrena daukaten adierazleak, "lehiakortasunerako determinante" gisa kalifikatutako adierazle bat izaki.

1.- Zuen ustez, adierazle horren emaitza zergatik da hain eskasa konparaziozko analisirako erabili diren eskualdeen aldean?

2.- Zuen ustez, jakintzako zerbitzu trinkoek zer eginkizun dute Nafarroako ekonomiaren modernizazioan?

3.- Departamentuak zer neurri ezarri du eta ezarri nahi ditu Nafarroaren lehiakortasunean determinantea den adierazle horri dagokionez?

Iruñean, 2023ko irailaren 19an

Foru parlamentaria: José Miguel Garrido Sola

11-23/PES-00098. Galdera, biomasak Nafarroaren eraldaketa energetikoan duen eginkizunari buruzkoa

MIGUEL GARRIDO SOLA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko irailaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Miguel Garrido Sola jaunak egindako galdera, biomasak Nafarroaren eraldaketa energetikoan duen eginkizunari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2023ko irailaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Miguel Garrido Sola jaunak, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean,

honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernu-ko Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitaleko Departamentuari, idatziz erantzun dezan:

Foru-erkidegoko energia endogenoko iturrieta-ko bat da biomasa; horren bidez, energia garbia sor dezakegu baliabide berekien aprobe-txamenduaren bitartez, tokiko eta landako ekono-miak dinamizatuta, mix energetikoa dibe-rtsifikatuta eta subiranotasun energetikoa sustatuta.

1.- Zuen ustez, biomasak zer eginkizun izanen du Nafarroaren eraldaketa energetikoan?

2.- Departamentuaren ustez, etorkizunean zeintzuk izanen dira Nafarroan biomasa-iturri nagusiak?

3.- Departamentuak zer neurri ezarri du eta ezarri nahi ditu Nafarroan biomasaren produkzioa bultzatzeko?

Iruñean, 2023ko irailaren 19an

Foru parlamentaria: José Miguel Garrido Sola

11-23/PES-00099. Galdera, "Enpresa pribatuetan hondakinak MITERD funtsekin kudeatzeko dirulaguntza" izeneko deialdiaren onuradunei buruzkoa

ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko irailaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamarique jaunak egindako galdera, "Enpresa pribatuetan hondakinak MITERD funtsekin kudeatzeko dirulaguntza" izeneko deialdiaren onuradunei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2023ko irailaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako parlamentari Adolfo Araiz Flamarique jaunak, Erregelamenduko 215. artikuluan ezartzen denari jarraikiz, galdera hauek aurkezten ditu, idatziz erantzun dakien:

Ingurumeneko zuzendari nagusiaren martxoaren 28ko 245E/2022 Ebazpenaren bidez onetsi zen "Enpresa pribatuetan hondakinak MITERD funtsekin kudeatzeko dirulaguntza" izeneko deialdiaren onuradunak nortzuk izan dira? Zenbateko dirulaguntza jaso dute eta zer proiektutarako jaso dute dirulaguntza hori?

Iruñean, 2023ko irailaren 21ean

Foru parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique

11-23/PES-00100. Galdera, "Enpresa publikoetan hondakinak Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioaren MITERD funtsekin kudeatzeko dirulaguntza" izeneko deialdiaren onuradunei buruzkoa

ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko irailaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamarique jaunak egindako galdera, "Enpresa publikoetan hondakinak Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioaren MITERD funtsekin kudeatzeko dirulaguntza" izeneko deialdiaren onuradunei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2023ko irailaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako parlamentari Adolfo Araiz Flamarique jaunak, Erregelamenduko 215. artikuluan ezartzen denari jarraikiz, galdera hauek aurkezten ditu, idatziz erantzun dakien:

Ingurumeneko zuzendari nagusiaren martxoaren 28ko 246E/2022 Ebazpenaren bidez onetsi zen "Enpresa publikoetan hondakinak Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioaren MRR funtsekin kudeatzeko dirulaguntza" izeneko deialdiaren onuradunak nortzuk izan dira? Zenbateko dirulaguntza jaso dute eta zer proiektutarako jaso dute dirulaguntza hori?

Iruñean, 2023ko irailaren 21ean

Foru parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique

11-23/PES-00101. Galdera, "Enpresa publikoetan hondakinak Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioaren MRR funtsekin kudeatzeko dirulaguntza" izeneko deialdiaren onuradunei buruzkoa

ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko irailaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamarique jaunak egindako galdera, "Enpresa publikoetan hondakinak Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioaren MRR funtsekin kudeatzeko dirulaguntza" izeneko deialdiaren onuradunei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2023ko irailaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako parlamentari Adolfo Araiz Flamarique jaunak, Erregelamenduko 215. artikuluan ezartzen denari jarraikiz, galdera hauek aurkezten ditu, idatziz erantzun dakien:

Ingurumeneko zuzendari nagusiaren apirilaren 21eko 363E/2023 Ebazpenaren bidez onetsi zen "Enpresa publikoetan hondakinak Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioaren MRR funtsekin kudeatzeko dirulaguntza" izeneko deialdiaren onuradunak nortzuk izan dira? Zenbateko dirulaguntza jaso dute eta zer proiektutarako jaso dute dirulaguntza hori?

Iruñean, 2023ko irailaren 21ean

Foru parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique

11-23/PES-00102. Galdera, animalien eskubideak eta ongizatea babesteari buruzko martxoaren 28ko 7/2023 Legeak indarra hartzeari buruzkoa

MIGUEL BUJANDA CIRAUQUI JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko irailaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Miguel Bujanda Cirauqui jaunak egindako galdera, animalien eskubideak eta ongizatea babesteari buruzko martxoaren 28ko 7/2023 Legeak indarra hartzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2023ko irailaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioko Miguel Bujanda Cirauqui jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Laster sartuko da indarrean Animalien eskubideak eta ongizatea babesteari buruzko martxoaren 28ko 7/2023 Legea. Aurreikusita al dago prestakuntza edo informazio ekintzarik egitea 19/2019 Foru Legerako etor daitezkeen aldaketak direla-eta? Hala baldin bada, noiz eta nori zuzendurik egingen dira?

Iruñean, 2023ko irailaren 21ean

Foru parlamentaria: Miguel Bujanda Cirauqui

